

# PORTUKO ASTO KARRERAK:

## 50 URTE JENDEA ALAITZEN

*Iban Oyarzabal*



az, 2001. urtean, portuko asto karrerek berrogeita hamargarren urtemuga ospatu zuten. Seguru asko 50 edizio baino gehiago egingo ziren, baina kontatu, jaietako antolatzaileek 50 besterik ez dituzte kontatu.

Lasterketen jatorria, eta baita auzoko festena ere, Espainiako gerra zibilaren aurretik kokatzen da. Joxe Retegi auzoko aitonak dioenez, gerra hasi baino lehen egin ziren lehenak. Gauza segurua da 1935ean egin zirela, eta 1934an agian ere bai. 1936an, ordea, ezin izan ziren jaiak ospatu, festak abuztuaren amaieran izaten baitira, eta gerrak uztailaren 18an izan baitzuen hasiera.

Guda 1939an amaitu zen, baina urte pare batetan ez zen jairik izan, beldurra

zegoelako eta baimenak lortu ezin izan zirelako. Gauzak horrela, 1941ean, gosearen garaian, ekin zieten berriro festa eta asto karrerei. Ordutik hona karrerek urte guztietan egin direla diote auzoko zaharrek. Horrenbestez, 50 edizio baino gehiago izango ziren, baina jaien arduradunek egindako lanean 50 besterik ez dituzte kontatu.

Hasierara bueltatuz, asto karrerek egiteko ideia Lasarteko zalditokiak eman zuen. Han zaldi lasterketak egiten ziren, eta haiek imitatzeko asmoz-edo, Portuko gazteei asto lasterketak egitea bururatu zitzaien. Orduan, Hernani inguruan behintzat, ez zen asto lasterketarik beste inon egiten, eta Portukoak hasi zirenetik beste toki askotan ere egiten hasi ziren.





Lehen, orain bezala, festak eta lasterketak antolatzeko baimena eskatu behar zitzaion udaletxeari. Dirua ere udalak ematen zuen batzuetan, eta auzoan festetarako argiak behar izaten zirenez, udalak elektrizista bidaltzen zuen argiak jartzeko festek iraun bitartean.

Hasierako urte haietan Portuko jaiek eta, bereziki, asto karrerek izugarrizko fama zuten. Inguruko herrietatik, Astigarraga, Urnieta..., jende ugari joaten zen Portura lasterketak ikustera. Errokillak saltzaileak, txurro saltzaileak eta beste hainbat pertsona etortzen zen, eta giro ezin hobea izaten zen.

### Aldaketa nagusiak

Urte guzti hauetan zehar karreren mamia ez da aldatu, bai, ordea, azala. Lehen, astoa lortzeko, egun batzuk lehenago joaten ziren jabearengana, igandean astoa ordubeterako uzteko eskatuz. Karreren egun berean, hasi baino ordu erdi lehenago, auzoko gazteak herriko baserrietara joaten ziren astoaren bila. Garai hartan asto ugari zeuden, eta gehienetan ez zuten arazorik izaten 6 bat lortzeko, nahiz eta batzuetan 4 edo 5 besterik eskuratu ez. Gehienetan Portuko eta Osiñagako astoak eramaten ziren. Etxekoandreen astoak ziren batik bat, esnea partitzeko erabiltzen zituztenak; gainean zeramaten saskia kendu eta Portura eramaten zituzten. Karrera egin, eta berriro eramaten zituzten baserrira bueltan. Batzuetan gertatu izan da astorik lortu ezin izana, une horretan

jabeak behar zuelako lan egiteko.

Lehen, abiapuntua eta helmuga orain auzorako sarrera dagoen parean egoten zen, ez baitzegoen orain Ibarrolaburu plaza izenaz ezagutzen duguna. Juezak "ia" esan eta bakoitzak ahal zuen bezala ateratzen zen. Makila eramaten zuten denek, Joxe Retegik esaten duenez, "zuk ematen ez bazenion, atzekoak ematen zion, batzuetan zure astoari eta bestetan zuri".

Asto gainera igotzeko ere komeriak izaten zituzten. Astoek ez zieten-eta gainean jartzen uzten. Baserrietako astoak ohituta zeuden saskia gainean eramatera, baina norbait gainean jartzen zitzaionean astoa saltoka eta ostikoka hasten zen.

Lehen lasterketa bakarra egiten zen, igandean eguerdiko 12etan hain zuten ere. Ibilbidea ere beste bat zen. Karabelaraino joaten ziren, Karabel Portuko zatitza jotzen baitzen garai haietan. Han buelta eman eta berriro Portura. Eta inork tranparik egin ez zezan, Karabelen lagun bat jartzen zen epaile moduan, eta astoek haren inguruan buelta eman behar izaten zuten berriro Portura abiatu baino lehen. Hala ere, asto mantsoenak zituztenak ez ziren inoiz Karabelera joaten; bide erdian egiten zuten buelta.

### Xelebrekeriak

Garai hartan asto gainean ibiltzen zirenek diotenez, askotan erortzen ziren lurrera.



Auzoko astoek primeran ezagutzen zuten ibilbidea, baina kanpokoek ez, eta horiek ibilbidetik atera eta edozein lekutara joaten omen ziren. Gainera, esnea eramaten zuten astoak ohituta zeuden jende artean ibiltzen, baina baserriko astoek bere jabea besterik ez zuten ezagutzen, eta horiek ziren "zailenak". Arrak eta emeak inguruan tokatzen zirenean ere komeriak izaten zituzten astazainek asto gainean irauteko. Txantxa giro eta alaitasun horregatik joaten zen hainbat jende Portura jaiak eta, bereziki, asto lasterketak ikustera. Hasierako urte haietakoren batean, Errotaberri baserriko astoak, adibidez, astazaina lurrera bota eta alde egin zuen. Etxeko bidea aurkitzen ez, eta jendea beregana arrimatzen zenean korrika hasten zen. Handik bizpahiru egunera harrapatu ahal izan zuten azkenean.

Orain, ordea, nahiz eta lasterketen izpiritua berdina izan, egiteko erak asko aldatu dira.


Lehengo moduan astoak lortzea ezinezkoa izango litzateke orain, ia astorik ez dagoelako. Hori dela eta, orain dela 8 urte Mutrikuko pertsona bati esker lortzen dituzte asto guztiak. Bera ganadu tratutan ibiltzen denez, erraztasun handia du astoak lortzeko. Hala ere, gertatu izan da sei asto eskatu eta berak lau asto bakarrik eta bi poni ekartzea. Asto bakoitzagatik 10.000 pezeta ordaintzen dituzte. Berak ekartzen ditu animaliak lasterketa hasi baino ordubete lehenago, sokak-eta jartzen dizkie, eta lasterketa

amaitzean jaso eta bueltan eramaten ditu berriz.

Orain sei asto izaten dira. Gehiago ekartzen badituzte arazoak daudelako astazainak aurkitzeko. Batzuetan gertatu izan zaie sei asto ekarri eta bost astazain bakarrik lortzea eta asto bat lasterketan parte hartu gabe geratzea. Baina 2001. urtea berezia zen. Lasterketen 50. urtemuga ospatzen zen, eta zerbait berezia egitearren, hamahiru asto ekarri zituzten. Horretarako, aurreko urteetan astazain ibilitakoei sei hilabete lehenago galdetu zieten ea prest egongo ziren berriro asto gainean jartzeko. Denen baietza jaso zuten, eta aurrera. Hamahiru asto ikusi ahal izan genituen Portuko kaleetan gora eta behera.

Ez dago teoriarik asto azkarrena zein den jakiteko, baina astazainek nahiago izaten dituzte txikiak; handiak ez ditu inork aukeratzeko, beldurra ematen baitie animalia handien gainera igotzeak. Mantsoen dabilenari tokatzen zaio asto handiena.

Astazainak kaleko jantziekin ateratzen ziren lehen, orain, berriz, mozturorik ateratzen dira Portuko gazteak. 20 bat urte daramate pailazoz, mexikarrez, pilotuz, gladiadorez, emakumez, eta abarrez jantzirik lasterketak egiten. Horrek, dudarik gabe, jaiari kolorea eman eta jendeak hobeto pasa dezan lortzen du.





## Bihurguneetan larri

Oraingo ibilbideak ere ez du zerikusirik garai batekoarekin. Orain Ibarrolaburu plazatik atera, aldapatxo aigo, eskuinetara jo, eta "Shangai" tabernan dagoen etxeari buelta eman eta gero, berriro plazara. Astazain guztiak bat datoz ibilbidearen zailtasun handiena bidegurutzeak edo bihurguneak direla esatean. Auzora sartzeko aldapatxoan beti egoten da jendea, eta astoek jarraitzen diote bideari, gutxi gorabehera, baina kanpora irtetea ez da jenderik izaten eta astoek, nahi duten bidea hartzen dute. Inoiz gertatu izan da astoak kuarteleko aldapa igotzen hasi eta aldapa erdian astazaina astotik jaitsi beharra animalia goraino igo ez zedin.



Gaur egun hiru lasterketa egiten dira, eta astazainek astoa aldatzen dute lasterketa bakoitzean. Astoari ez diote ez zelarik ez ezer jartzen eta, horren ondorioz, bizpahiru egunetan minberatuta ibiltzen dira lasterketako parte-hartzaileak. Hori bai, makila eramaten dute ia denek, eta aitortu dutenez, oso gustura jotzen omen diete ipurdian astoei.

Erarikoez ez da inor libratzen, ez haiek ez hauek. Asko erortzen direla aitortzen dute oraingo astazainek. Anekdotak ere badituzte. Behin, adibidez, lehen zerratokia zen etxe horren parean Joxe Retegiren andrea omen zegoen lasterketak ikusten. Bat-batean, astoa beregana joan zen, bultza egin zion eta andrea egurren kontra erori zen. Ospitalera igo behar izan zuten. Beste batean, berriz, asto batek Floridako neska kozkor bati ostikoa

jo zion hankan, eta baita asto batek astazaina bota eta haren sabelaldea zapaldu ere. Batzuei ez zaie inporta horrelakoak jasatea, baina bada erori eta gero asto gainea gehiago igo ez denik. Zer izango litzateke asto lasterketa horrelako "aberiari" gabe...

## Apustuak

Lasarteko zaldi lasterketetan apustuak egiten dira, jakina denez, eta Portukoak ez ziren gutxiago izango. Orain 10 urte hasi ziren apustuak egiten. Javi Perez Vacas zen apustu arduraduna. Txartelak egin, dirua jaso, irabazleei dirua eman... dena bere esku zegoen. Behin besterik ez ziren egin, baina 50.

urtemuga aprobetxatuz, berriro jarri zen Javi buru-belarri lanean. Oso bitxia izan zen. Apustuak egin behar zirenez (20 durokoa zen apustu bakoitza), 13 astoak bereizteko telatxoak jarri zizkieten, bakoitza bere zenbakiarekin. Eta noski, apustu egin nahi zutenek astoen datu gehiago jakin nahi zituzten. Horretarako, eta umore bikainez, antolatzaileek apustu horri bat prestatu zuten. Eta agian gehiegi esatea bada ere, lasterketek baino arrakasta gehiago izan zuten apustu horiek.

Eta horrelaxe igaro ziren 2001eko festak eta asto lasterketak. Berezia izan zen, 50. urtemuga ospatzen zelako, baina berriro esan behar da, kontatutakoak direla 50, baina, seguru aski, gehiago izango zirela ospatutakoak.